

ZARAUTZ / Irakurketa kluba, haurrek irakur dezaten

Kultura Ordu eta erdiko hiru saiotan, haurren irakurletasuna sustatuko dute Galtzagorri elkarteko arduradunek

Sanz Enea Liburutegiak lau-bost urte bitarteko haurrentzat eta hauen gurasoentzat Irakurketa Kluba antolatu du. Ekimen honek ordu eta erdiko hiru saioetan datza. Hauek urriaren 23an, azaroaren 20an eta abenduaren 11ean izango dira, 17:30etan haur liburutegian.

Saioen helburua haurrek eta gurasoek hilabetean behin bada ere denbora tarte bat partekatzea da. Honekin batera, Galtzagorri elkarteko bi profesionalen gidaritzapean, haurrek irakurketa sustatuko dute.

Saio bakoitzean bibliografia egokia aurkeztu eta liburuei buruzko proposamenak egingo dira talde txikitan. Honela, gaztetxoek kalitatezko euskal bibliografia ezagutu ahal izango dute, giro egokian.

Antolatzaileek adierazi dutenez, irakurketa txoko honetan parte hartu nahi dutenek lehenbailehen eman beharko dute izena, izan ere, 20 plaza bakarrik daude. Izena emateko urriaren 21a baino lehen egin beharko da, Sanz Eneako haur liburutegian.